



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/11/28 Udaletxean 18.00-20:15



### Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Mila Sukia (Ordizia Orain)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Joseba Aranburu (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)  
Patxi Arrospide (Herritarra)  
Adur Ezenarro (Bildu)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Sasietako Mankomunitateko Estatutuak
3. Ordenantza
4. Hainbat gai:
  - o Iturtxoko puntua
  - o Elkano Kalea
  - o Errauskailua
  - o Hondakinen prebentzio astea (azaroaren 18tik 26ra)

### Aurreko aktaren onarpena

Urriko akta onartutzat ematen da.

### Sasietako Estatutuak

TEKNIKARIA: Ordizia Orainek Sasietako Estatutuak hondakin mahaira ekarri ditu hemen aztertzeko.

EAJ: Sasietako estatutuak hondakin mahaira ekartzea oso ondo iruditzen zait.

TEKNIKARIA: Orain Itsaso udalerrri bat da eta Sasietako Mankomunitatean sartzeko eskaera egin du eta ondorioz, estatutuak aldatu behar dituzte. Bide batez, bilketa exekutiboaren gaia ere bertan moldatu dute. Estatutu berrietan azaltzen da Foru Aldundiari ematen diola bilketa exekutiboa egiteko ahalmena.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/11/28 Udaletxean 18.00-20:15



ORDIZIA ORAIN: Udalerrri batzuk estatutu hauek lantzeko denbora gutxi izan dugu eta bileran ez dira onartu.

Abenduko bileran 2018ko aurrekontuak eta estatutu berriak onartu nahi dira, hiru aste edo horrela ditugu estatutu hauek lantzeko. Zalantzak baditugu Sasietako idazkaria bilerara etorriko litzateke hauek azaltzea.

ORDIZIA ORAIN: Aurreko estatutuak ez du legedia betetzen. Aldaketa nabarmenena botoa emateko modua da. Orain arte udalerrri bat boto bat da, tamaina handikoak (5.000 biztanle baino gehiagokoak) bi boto dituzte baina orain proposatzen dena da:

- Bozketa ponderatua, udalerrriko biztanle kopuruaren arabera
- Baiezkoa ematen duen udalerrri kopurua

ORDIZIA ORAIN: Udalerrri txikiak orain baina boto eskubide txikiagoa izango dute. Orain boto bat dute eta ondoren boto bat baino gutxiago.

ORDIZIA ORAIN: Ordiziarri dagokionez, udalerrriko biztanle kopuruari dagokion bozketa ponderatua %14,2koa da eta bi ordezkari ditugunez bakoitzak %7,1 dauka.

Baina bi boto hauek berdinak izan behar dira, ezberdinak badira boto hauek ez dira kontutan hartuko. Udalerrriak dituen botoak adostu behar dira eta ondoren bi boto hauek alde berdinekoak izan behar dira. Ezberdinak badira boto hauek abstentzio bezala izango dira.

EAJ: Aldaketa honek zein arazo konpontzen duen jakin beharko genuke

ORDIZIA ORAIN: Gaur egun, udalerrri txikiak elkartuta gehiengo izan daitezke nahiz eta biztanle gutxiago izan.

Beste Mankomunitateak nola funtzionatzen duten begiratu dute estatutu berri hauek egiteko.

EAJ: Udalerrri txikiak babestu behar dira, beraien kostuak oso handiak dira.



ORDIZIA ORAIN: Aldaketa nabarmenena boto ponderatua da. Baita ere aldatu da Batzorde Exekutiboaren eraketa: lehen gehienez 5 pertsona egon behar zuten baina orain pertsona gehiago sartu daitezke.

bilketa exekutiboa: 10 €koa baino handiagoa bada ahalmen hau egiteko aukera GFari emango zaio.

Sasietako idazkaria prest dago hondakin mahaira etortzeko edozein zalantzarri erantzuna emateko.

EAJ: Talde bakoitzak bere aldetik landu beharko du eta ondoren helbide elektronikoz bidaltzen ditugu dudak.

Teknikariari bidaliko zaizkio ondoren berak Sasietara bidaltzeko eta duda hauen arabera erabakiko da bilera egin ala ez.

	<p style="text-align: center;"><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p style="text-align: center;"><b>2017/11/28 Udaletxean 18.00-20:15</b></p>	
---	---	---

EAJ: Mahai honetako lanketa loteslea izango den galdetzen du.

ORDIZIA ORAIN: Mahai honetan adosten dena Sasietako bilerara eman eta defendatuko dut. Emango diren pausuk: estatutuen proposamena onartu eta gero, Gipuzkoako Boletinean argitaratuko da, alegazio epe bat egongo da eta ondoren udalerrri guztietako plenoetan onartu behar da.

TEKNIKARIA: Estatutuak landu gabe dituzenez, ondorengo datak proposatzen dizkizuet:

Abenduak 11: Korreo elektronikoz ekarpenak edo zalantzak bidaltzeko epea.

Abenduak 18: Zalantza tekniko asko badaude, Sasietako idazkariaren presentziarekin hondakin mahaiaren bilera egingo dugu arratsaldeko 18:00etan.

ORDIZIA ORAIN: Beasainen, Ordizian, Zumarragan eta Urretxun ontzi arinen bilketaren inguruan; orain arte edukiontzi horia asteko 6 egunetan hustutzen zen, igandetan ez, baina astelehenetan edukiontziak gainezka egoten dira eta lurrean poltsa asko. Lurreko poltsa hauek errepasoko ekipoak jasotzen ditu eta ez dira birziklatzen.

Hiru astetan zehar igandetan edukiontzi hauek bildu dituzte eta datu ekonomiko hauek atera dituzte:

Zerbitzuaren kostua: 80 €/tonelada

Lortzen dugun kantitatea: 248 €/tonelada

Jarraipena egin dute eta %40ko igoera bat egon dela ikusi dute.

Erabakia: Edukiontzi horiko hondakina asteko egun guztietan bilduko da.

PSE: Datu lazgarriena ontzi arinen sorkuntza handitzen ari dela da.

EAJ: Arazo honek aukera bat ematen digu, onura hau arazoa konpontzen erabili behar dugu: Sentsibilizazio kanpainak,.....

PSE: %40eko igoera honengatik lortzen den onura ekonomiko hau sorkuntza gutxitzeko erabili beharko zen.

LANDARLAN: Hondakinak murrizteko kanpainak egin behar dira. Sasietak egin beharko lituzke.

ORDIZIA ORAIN: Orain arte, traste zaharrak astelehenetan ateratzen dira baina jai eguna bazen zerbitzu hori ez zen egoten. Orain berriz, astelehenetan nahiz eta jai eguna izan traste zaharrak bilduko dira. Zerbitzu honen kostua aldatzen da.

## Ordenantza

TEKNIKARIA: Aurreko bileretan egindako aportazioak urdinez jarri ditut. 15. artikulutik 25. artikulura landuko dugu.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/11/28 Udaletxean 18.00-20:15



Sasietari galdetuko zaio industrialdeetako bilketa nola egiten duen. Kartoia eta palet-ak Sasietak biltzen ditu.

Sasietako ordenantzan zehazten diren zerbitzuak txertatuko dira.

Edukiontzia eta ontziaren arteko ezberdintasuna zehaztea baloratuko da. Tratamendu ezberdin bat badute hau definitu egin beharko da.

### Hainbat gai

#### ITURTOKO PUNTUA

Puntu hau Garagartza plazara mugitu da eta oraingoz arazorik ez dago.

#### ELKANO KALEA

Ordizian merkatarik elkarteak ondorengo eskaera egin du:

Elkano kalean arazo bat dago ze asteazkeneko hondakin ugari pilatzen da kalean. Hauek direla, kontenedoreak direla eta kamioia bueltaka dabilela leku hel ezina bihurtzen da. Alde Zaharreko kalea izanik eta Plaza Nagusia Kale Nagusia eta Gudarien etorbidearekin lotura duen horretan dagokion garrantzia eman behar zaiolarik. Bertako bizilagun eta merkatarik kontutan hartuta ere.

Arazo honi bi irtenbide ikusten zaizkio:

-Sortzen diren hondakin hauek azoka aurretik jasotzea. Astearte arratsaldean edo... kamio batez hondakinak bildu eta eraman.

-Merkataritzari ematen zaion zerbitzu hau kentzea (gaur egun kontenedoreak daudela kontutan hartuta). Hau ondo aztertu eta hartzen den erabakia dendariei ondo komunikatuta.

Zerbitzu hau kentzea eta eskaera hau Zerbitzu delegaritzara ematea adostu da.

#### ERRAUSKAILUA

GHKri informazioa eskatu zaio (4 alditan) eta bere erantzuna honako hau izan da:

“Zure kontsultarekin erlazonaturiko gaiak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak bere Batzarraren baitan izapidetu ditu. Hau horrela izanik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko ordezkari diren Batzarkideek, zure e-mailan mahaiganeratzun dituzun gaiei buruzko informazio guztia dute.

Beraz, zure Mankomunitatera jotzera iradokitzen zaitugu”.

Sasietari galdetu nion eta bere erantzuna:



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/11/28 Udaletxean 18.00-20:15



“Aukera bakarra GHKra bertara joan eta espediente aztertzeko eskatzea litzateke. Baina hori gure ordezkarietako batek egin beharko luke”.

ORDIZIA ORAIN: GHKra bidalitako informazioa hartuko du eta bera joango da zuzenean informazioa eskatzera.

EAJ: Errauskailuaren kostuaren inguruko konpromisoa egunkarian azaldu zen.

TEKNIKARIA: Hau denei bidaliko dizuet.

Aipatutako artikulua link-a:

<http://www.diariovasco.com/gipuzkoa/201705/12/jose-ignacio-asensio-diputado-20170512000719-v.html>

### HONDAKINEN PREBENTZIO ASTEA

1. Hondakinak garbigunera eramateagatik opari bat eman: Sasietari galdetu genion eta ideia oso ona dela esan digute eta berak saiatuko direla egiten. Garbigunea ez da Udalaren kompetentzia eta Ordiziar bati hondakin bat emateagatik opari bat ematen badiogu diskriminazio positibo bat egiten ari garela esan ziguten.
2. Argazki rally bat egitea: ikastetxeekin elkarlanean hasiko gara eta argazkiak jasoko ditugu. Ondoren erakusketak egin nahi dira ikastetxeetan, Barrenan,.....

### SASIETAREN KANPAINA

Ikuskaritza eta jarraipena ondorengo puntuetan:

- Gudarien etorbidean
- Joseba Rezola pasealekuan, pasarela ondoan

### Hurrengo bilera

Urtarrileko bilera: Urtarrilaren 23an 18:00etan.